



IKUSPEGIAK

Arteei eta Kultura
Industriei buruzko Estatistikaren
emaitzen irakurketa analitikoa **2013**



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

IKUSPEGIAK

Arteei eta Kultura
Industriei buruzko Estatistikaren
emaitzen irakurketa analitikoa

2013



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2015

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

Argitaraldia:

1.a, 2015eko abuztua

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila

Internet:

www.euskadi.eus

Argitaratzailea:

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
C/ Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Diseinua eta maketazioa:

Miren Unzurrunzaga Schmitz

AURKIBIDEA

Sarrera	5
I. EAE-KO ARTEEI ETA KULTURA-INDUSTRIEI BURUZKO ZIFRA NAGUSIAK	6
1. Sektoreen dimentsioa	7
2. Titulartasuna	14
3. Lurraldea	17
II. ZEHARKAKO IRAKURKETAK	19
1. Asimetriak	20
2. Zuzeneko kultura vs. kultura erreproduzigarria	33
3. Arteen eta kultura industrien bolumen ekonomikoaren bilakaera	35
4. Kultura euskaraz	38
5. Ekimen publikoaren pisua eta harekiko mendekotasuna.....	41
6. Berritzea eta nazioartekotzea	44
7. Generoa	49
III. LABURPENA	51

Sarrera

Arteei eta Kultura Industriei buruzko Estatistikaren hirugarren edizioak 2013ko datuei egiten die erreferentzia. Sektorearen datu hertsiez harago doa, eta datuen analisia egitea du helburu. *Ikuspegiak* txostenak irakurketa orokorra egiten du, interpretazioari bide emateko. Sektore guztietarako hiru edizio izateak interes handiagoa ematen die berez balioa duten datuei, horien bidez joerak azter daitezke eta. Datu horiek 2009-2013 epekoak dira, non testuinguruak benetan dinamika esanguratsuak izan dituen.

Aurreko edizioetan bezalaxe, asmoa da sektorearen ingurukoa baizik ez den analisia ikuspegi horien bidez gaintzea Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) joera eta ezaugarri orokorrak hautemateko. Hala, analisiaren egiturak hiru atal nagusi ditu:

Lehenik eta behin, arteen eta kultura industrien errealitatearen karakterizazioa aurkezten da sektoreen dimentsioaren, titulartasunaren eta lurralde-banaketaren analisiaren bidez.

Bigarrenik, zeharkako analisia egiten da. Horrela, ikuspegiak kopuru orokorrak hartu beharrean ardatz, gai zehatzak hartuko ditu; besteak beste, sektoreen arteko asimetriak, kultura erreproduzigarriaren eta zuzeneko kulturaren arteko bereizketa, agenteen jardura ekonomikoaren eboluzioa, euskarak kultura-jardueran duen pisua, agente pribatuek arlo publikoarekiko zer mendekotasun-maila duten eta generoa.

Hirugarrenik, eta ondorio gisa, laburbilduta aurkezten dira emaitza esanguratsuenak.

Laburbilduz, *Ikuspegiak 2013. Arteei eta Kultura Industriei buruzko Estatistikak emandako datuen irakurketa analitiko*a txostenak jarraipena ematen dio EAEko kultura errealitatea aztertzeko modu bati, hain zuzen, sektoreen araberako estatistika oinarri hartzen duen eta zeharkako ikuspegiari bide ematen dioten hainbat parametro gaineratuta egiten denari.

I. EAE-KO ARTEEI ETA KULTURA- INDUSTRIEI BURUZKO ZIFRA NAGUSIAK




1. Sektoreen dimentsioa

Arteei eta Kultura Industriei buruzko Estatistikak EAEko hainbat kultura-arlotan diharduten 606 agenterik buruzko informazioa ematen du¹. Sektore horien ekoizpen, erakusketa- eta merkataritza-jardueran diharduten agenteak zenbatu dira eroldan:

- **Arte eszeniko**etako sektorean 112 programatzaile eta 67 ekoizle daude. Programatzaileen artean, aretoak (79) eta jaialdiak (33) hartzen dira kontuan. Ekoizleen kategoriaren baitan, antzerkiko (59) eta dantzako (8) profesionalen konpainiak sartzen dira.
- **Liburuaren** sektorean 132 agente daude, liburu-dendak (96) eta argitaletxeak (36) zenbatuta.
- **Musika**ren sektorean 158 agente sartzen dira: 132 agente zuzeneko musikan aritzen dira eta 26 diskoaren industrian. Hauek hartu dira aintzat zuzeneko musika-agenteen artean: 70 programatzaile publiko, 29 sustatzaile pribatu, 23 kontzertu-areto, 3 orkestra eta 7 musika-eta txistulari-banda. Diskoaren industriak, berriz, 5 diskoetxe eta 21 disko-saltoki hartzen ditu barne.
- **Ikusizko arteen** alorreko 62 ekoizle eta erakusleen artean hauek bildu dira: erakusketa-gelak (38), arte-galeriak (21) eta ekoizpen-guneak (3).
- **Ikus-entzunezko** sektoreko ekoizleak (75).

¹ Kultura-sektore bakoitzeko [estatistikaren berriazko argitalpenean](#) eroldan sartzeko kontuan hartutako irizpide metodologikoak eta lan-eremuaren fitxa teknikoa deskribatzen dira.

1. irudia. Agentek, sektoreen arabera. Kopuru absolutuak. 2009-2013



2009. urtearen aldean, estatistika osatzen duten agenteen egitura % 10,2 murriztu da (69 agente gutxiago). Sektore guztietan izan du eragina, baina aldaketa nabarmenena, termino absolutuetan, liburu-dendetan, arte eszenikoaren konpainietan eta erakusketa-geletan gertatu da (24, 17 eta 13 agente gutxiago 2009an, hurrenez hurren). Joera horren salbuespen dira arte eszenikoaren programatzaileak, estatistikan aztertutako antzerki-aretoak zertxobait ugaritu dira eta.

Hamar agentetik zazpi, gutxi gorabehera, erakusketa- eta merkaturatze-sarekoak dira (% 69,5); ekoizleak totalaren % 30,7 dira.


2. irudia. Agentek, sektoreen eta agenteen tipologiaren arabera. Kopuru absolutuak eta ehunekoak. 2009-2013

Sektorea	Agentearen tipologia	2009		2011		2013		2009-2013 aldaketa
		Maizt.	%	Maizt.	%	Maizt.	%	%
Arte eszenikoak	Ekoizleak	84	12,4	80	12,4	67	11,1	▼20,2
	Programatzaileak	106	15,7	109	17,0	112	18,5	▲5,7
Liburua	Argitalpenak	38	5,6	38	5,9	36	5,9	▼5,3
	Liburu-dendak	120	17,8	100	15,6	96	15,8	▼20,0
Musika	Orkestrak	3	0,4	3	0,5	3	0,5	=
	Musika- eta txistulari-bandak	-	-	-	-	7	1,2	-
	Programatzaile publikoak	74	11,0	68	10,6	70	11,6	▼5,4
	Sustatzaile pribatuak	29	4,3	29	4,5	29	4,8	=
	Kontzertu-aretoak	24	3,6	25	3,9	23	3,8	▼4,2
	Diskoetxeak	6	0,9	5	0,8	5	0,8	▼16,7
	Disko-saltokiak	26	3,9	26	4,0	21	3,5	▼19,2
Ikusizko arteak	Ekoizleak	5	0,7	4	0,6	3	0,5	▼40,0
	Erakusketa-gelak	51	7,6	51	7,9	38	6,3	▼25,5
	Arte-galeriak	26	3,9	26	4,0	21	3,5	▼19,2
Ikus-entzunezkoa	Ekoizleak	83	12,3	79	12,3	75	12,4	▼9,6
Guztira		675	100,0	643	100,0	606	100,0	▼10,2


Termino absolutuetan, 2013ko diru-sarrera eta gastuen balantze orokorra negatiboa izan zen 8,6 milioi euroko tarteagatik, hau da, diru-sarrera totalaren % 2,5. Aurtengo ekitaldian, 2009. eta 2011. urteen aldean joera aldatuko dela aurreikusten da, urte horietan balantzea positiboa izan baitzen (14 milioi euro ingurukoa). Nabarmenezkoa da, halaber, 2009tik hona diru-sarrerak jaitsi egin direla: 43,3 milioi euro 2009tik 2011ra bitartean, eta 87,3 milioi euro 2011tik 2013ra bitartean. Estatistikan agenteen kopurua murriztu dela kontuan hartu behar bada ere (% 10,2 gutxiago 2009 eta 2013 bitartean), diru-sarreraren murrizketa % 27,9koa izan da epe berean.

Ikusizko industriak bolumen ekonomiko handiagoa hartzen du (diru-sarreraren % 42,0 eta gastu guztien % 42,7). Hala, pisua murriztu du aurreko ekitaldien aldean. Liburuaren eta musikaren sektoreek balio oso antzekoak dituzte (70 milioi euro ingurukoak). Nabarmenezkoa da arte eszenikoen sektoreak, agenteen % 29,6 izanik, diru-sarrera eta gastu guztien % 13 inguru biltzen duela.

3. irudia. Agenteen diru-sarrerak totalak, sektoreen arabera. Milioi eurotan eta ehunekotan. 2009-2013



4. irudia. Agenteen gastu totalak, sektoreen arabera. Milioi eurotan eta ehunekotan. 2009-2013




Sektoreen arabera diru-sarrera eta gastuen balantzean, galerak ikusten dira agente pribatuak nagusi diren sektoreen zati handi batean. Liburuaren sektorea da saldo positiboa duen bakarra: % 5,6 argitaletxeetan eta % 1,8 eskas liburu-dendetan. Emaidza negatiboen artean okerrenak musikako sustatzaile pribatuak (% 5,6), kontzertu-aretoak (% 4,9) eta ikus-entzunezkoak (% 4,3) dituzte. Grabatutako musikak, diskoetxe eta disko-saltokiekin batera (% 0,7) eta arte-galeriek (% 0,7) balantze negatiboak ekarri dituzte. Hala, azpimarratzekoa da 2011n zailtasun-seinaleak hautemanik, aurtengo edizioan egiaztatu egin dela kultura arloko sektoreak estutasun-egoeran daudela.

5. irudia. Diru-sarrerak, gastuak eta balantzea, sektorearen eta agentearen tipologiaren arabera. Euroak (milaka) eta ehunekoak. 2013

Sektorea	Agentearen tipologia	Diru-sarrerak	Gastuak	Balantzea	Ehunekoa, diru-sarrera totalarekiko
		Mila eurotan	Mila eurotan	Mila eurotan	%
Arte eszenikoak	ekoizleak	11.301,9	11.318,5	-16,5	-0,1
	Programatzaileak	32.484,8	35.345,4	-2.860,7	-8,8
Liburua	Argitalpenak	25.932,8	24.478,6	1.454,2	5,6
	Liburu-dendak	46.708,1	46.066,7	641,4	1,4
Musika	Orkestrak	16.530,7	16.548,1	-17,3	-0,1
	Musika- eta txistulari-bandak	14.648,7	14.779,0	-130,3	-0,9
	Programatzaile publikoak	25.543,1	26.961,1	-1.418,0	-5,6
	Sustatzaile pribatuak	3.338,9	3.502,2	-163,3	-4,9
	Kontzertu-aretoak	5.641,1	5.641,1	0,0	0,0
	Diskoetxeak	1.617,3	1.627,9	-10,7	-0,7
	Disko-saltokiak	3.519,6	3.532,0	-12,3	-0,4
Ikusizko arteak	ekoizleak	2.438,6	2.438,6	0,0	0,0
	Erakusketa-gelak	4.595,9	4.596,9	-0,9	0,0
	Arte-galeriak	1.636,4	1.641,5	-5,1	-0,3
Ikus-entzunezkoa	ekoizleak	142.118,2	148.177,2	-6.059,0	-4,3
Guztira		338.056,2	346.654,8	-8.598,7	-2,5

2013an, 2.665,3 langile zenbatu dira² kultura arloko agenteen artean. 2009. urteaz geroztik beheranzko joera dago: edizio horretan baino 478,5 enplegu gutxiago daude (% 15,2). Sektore bakoitzeko langileek totalarekiko duten pisuari dagokionez, banaketa pisu ekonomikoaren oso antzekoa da. Ikus-entzunezkoen sektorea da langileen proportzio handiena duena (% 46,2) eta horren atzetik musikaren sektorea (% 21,9). Liburuarena eta arte eszenikoena % 14 ingurukoa da. Ikusizko arteen sektorea da enplegu gutxiena biltzen duena (% 3,3).

6. irudia. Langileak (urteko lanaldi osoko langileen baliokideak), sektoreen arabera. Absolutuak eta ehunekoak. 2009-2013



² Txostenean, langileen kopuruari erreferentzia egitean, urteko lanaldi osoko langileen baliokidearen kalkulua egiten da.

7. irudia. Langileak (urteko lanaldi osoko langileen baliokideak), sektoreen eta agenteen tipologiaren arabera. Kopuru absolutuak eta ehunekoak. 2009-2013


Sektorea	Agentearen tipologia	2009		2011		2013		2009-2013 aldaketa
		Maizt.	%	Maizt.	%	Maizt.	%	%
Arte eszenikoak	ekoizleak	234,8	7,5	186,4	6,4	173,6	6,5	▼26,1
	Programatzaileak	218,4	6,9	217,7	7,5	210,6	7,9	▼3,6
Liburua	Argitalpenak	196,9	6,3	167,6	5,7	115,7	4,3	▼41,2
	Liburu-dendak	350,0	11,1	308,6	10,6	263,0	9,9	▼24,9
Musika	Orkestrak	211,0	6,7	214,2	7,3	206,0	7,7	▼2,4
	Musika- eta txistulari- bandak	90,6	2,9	71,1	2,4	66,6	2,5	▼26,5
	Programatzaile publikoak	144,6	4,6	133,2	4,6	126,7	4,8	▼12,4
	Sustatzaile pribatuak	63,3	2,0	61,5	2,1	38,0	1,4	▼40,0
	Kontzertu-aretoak	-	-	-	-	101,3	3,8	-
	Diskoetxeak	15,5	0,5	16,5	0,6	16,1	0,6	▲3,9
	Disko-saltokiak	40,2	1,3	34,5	1,2	28,6	1,1	▼28,9
Ikusizko arteak	ekoizleak	26,0	0,8	24,0	0,8	23,2	0,9	▼10,8
	Erakusketa-gelak	43,0	1,4	49,8	1,7	34,9	1,3	▼18,8
	Arte-galeriak	43,9	1,4	36,9	1,3	30,5	1,1	▼30,5
Ikus-entzunezkoa	ekoizleak	1.465,6	46,6	1.396,7	47,9	1.230,5	46,2	▼16,0
Guztira		3.143,8	100,0	2.918,5	100,0	2.665,3	100,0	▼15,2

2. Titulartasuna

Hiru titulartasun hartu dira kontuan: titulartasun publikoko agenteak dira nagusiki Administrazio Publikoan partaidetza duten edozein itxura juridikoko erakunde guztiak; titulartasun pribatua enpresa-jardueran eta irabazteko asmoz diharduten agenteei dagokie; eta, azkenik, elkarteak eta fundazioak irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuak dira.


Estatistikaren analisi-esparruan, titulartasun pribatuko agenteak dira nagusi (2013an, % 57,6), beheranzko nolabaiteko joerarekin.

8. irudia. Agenteak, titulartasunaren arabera. Ehunekoak. 2009-2013




Agente pribatuen nagusitasuna ez da horren argi jasotzen diru-sarrera eta gastuen banaketan; izan ere, agente publikoek diru-sarreraren % 47,7 eta gastuen % 48,4 biltzen dute. Era berean, ohartarazi da ikuspuntu ekonomikotik elkarteek eta fundazioek eragin gutxi dutela aztertutako kultura arloko agente guztien artean.

9. irudia. Diru-sarrera guztiak, titulartasunaren arabera. Milioi eurotan eta ehunekoak. 2009-2013




10. irudia. Gastu guztiak, titulartasunaren arabera. Milioi eurotan eta ehunekoak. 2009-2013



Enpleguari dagokionez, titulartasun pribatuko agenteen artean dago enplegu guztiaren erdia. Hala ere, nabarmentzekoa da enplegu publikoa ia bere horretan geratu bada ere, kultura arloko sektore pribatuko enpleguak beheranzko joera argia adierazten duela. Hala, 2009az geroztik % 28,1 langile gutxiago dago.


11. irudia. Langileak, titulartasunaren arabera. Langileak (urteko lanaldi osoko langileen baliokideak) Kopuru absolutuak eta ehunekoak. 2009-2013



3. Lurraldea

Agenteek lurraldean duten banaketak agerian usten ditu tipologiaren arabera. Hala, arte eszenikoetako programatzaileen eta erakusleen artean (agente publikoak dira nagusi), lurralde-banaketa berdintsua ikusten da. Gipuzkoan dago 100.000 biztanleko arte eszenikoetako programatzaileen ratio handiena (6,3). Nabarmentzekoa da, kasu honetan, Araban desagertu egin direla erakusketa-aretoak.

12. irudia. Programatzaileak eta erakusleak Lurralde Historikoen arabera. Ehunekoak. 2013




Hala ere, musika-saltoki eta -aretoen artean, hainbat berezitasun hauteman daitezke hiru lurraldeetan: Bizkaia nabarmentzen da liburu-denden % 66,7 eta arte-galerien % 61,9 biltzen dituelako, eta kontzertu-areto gehien dituen lurraldea delako (% 52,2); Gipuzkoa, disko-saltokiengatik (% 57,1); eta Araba, kontzertu-aretoengatik (% 21,7). EAEn 100.000 biztanleko areto-ratioa altuena du (1,6) Arabak.


ekoizleak Gipuzkoan eta Bizkaian bilduta daude gehien bat: arte eszenikoetako konpainiak Gipuzkoan (% 41,8) eta Bizkaian (% 40,3) daude; argitaletxeen sektoreak Bizkaian (% 50,0)

eta Gipuzkoan (% 44,4) du presentzia, eta ikus-entzunezkoen ekoiztetxeak, berriz, Bizkaian (% 49,3) eta Gipuzkoan (% 44) daude banatuta. EAEn bost diskoetxe baino ez dira zenbatu, bat Bizkaian eta bi Gipuzkoan; eta ikusizko arteetako hiru ekoizle, Gipuzkoan bi eta Bizkaian bat.

13. irudia. Merkataritza-saltokiak eta kontzertu-aretoak, lurralde historikoen arabera. Ehunekoak. 2013



14. irudia. Ekoizleak Lurralde Historikoen arabera. Ehunekoak. 2013



II. ZEHARKAKO IRAKURKETAK



1. Asimetrias

Atal honetan azpimarratu nahi da sektore bakoitzean badirela berariazko asimetriak. Zehazki, 80-20 araua aplikatu da. Helburua da ezberdintasunak bilatzea sektore bakoitzean diru-sarrera handienak dituzten agenteen % 20ren eta gainerako % 80aren artean ebakidura bat aplikatuz. Horrela, lehen begiratuan nabarmen daiteke zer-nolako eragina duen sektore bakoitzeko enpleguarekiko eta jarduerarekiko. Era berean, sektoreen arteko aldeak aztertzeo aukera ematen du.


Lehenik eta behin, sektore ezberdinen asimetriak eta kontzentrazio-mailak oro har begiratuta, ia kasu guztietan ikus daiteke diru-sarrera gehien dituzten agenteen % 20k agente-mota bakoitzaren diru-sarreraren % 60 baino gehiago biltzen duela (galeriak eta liburu-dendak baino ez daude % 60tik behera). Hala, baieztatu daiteke, oro har, EAEko arteen eta kultura industrien kontzentrazio-maila handia dela eta denborak aurrera egin ahala joera hori finkatuz doala.

Rankingarekin bat, hainbat kontzentrazio-maila ikus ditzakegu: asimetria ezin handiagoa arte eszenikoetako jaialdien eta musika-ekoizleen artean (% 80tik gorakoa); bigarren mailan % 75, non erakusketa-aretoak, antzokiak eta argitaletxeak sartzen diren; hirugarren mailan, % 69 inguru ikus-entzunezkoen ekoizleen, disko-saltokien, musika-programatzaile publikoen eta arte eszenikoen konpainien artean; eta mailarik baxuena % 60 ingurukoa, non kontzertu-aretoak, arte-galeriak eta liburu-dendak dauden.

Bigarrenik ikusten da erakusleek eta programatzaileek diru-sarrera kontzentrazio handiagoa dutela. Hala, rankingaren hasieran daude arte eszenikoetako jaialdiak, musika-sustatzaile pribatuak, ikusizko arteetako erakusketa-gelak eta arte eszenikoetako aretoak. Arau honen salbuespenak musika-programatzaileak eta kontzertu-aretoak dira.

Bestalde, ekoizleak (argitaletxeak, ikus-entzunezkoak eta arte eszenikoak) rankingaren tarteko mailetan daude, % 65etik gora. Saltokiek dute kontzentratzeo joera gutxien (galeriak eta liburu-dendak), nahiz eta disko-saltokiei dagokiena % 69koa izan.

15. irudia. Agenteen tipologiaren rankinga, diru-sarrera gehien dituzten agenteen % 20ko diru-sarreraren kontzentrazioaren arabera. Ehunekoa. 2013




(1) ETB kontuan hartu gabe.

Arte eszenikoetako ekoizleak

Diru-sarreraren % 67,7 barne hartzen duten 13 konpainien pisuak behera egin du pilatzen duten enpleguari dagokionez: % 47,6tik % 39,7ra (69 langile).

Aipatutakoen jarduerari dagokionez, % 31,3ko pisua dute ekoizitako ikuskizunen artean, % 27,5koa ustiatutako emanaldien artean eta % 33,9koa gauzatutako emanaldietan. Baliabideei dagokienez, konpainia horiek anbizio handieneko ikuskizunak ekoizten dituzte.


16. irudia. Sektoreko adierazleetan diru-sarrera handienak dituzten arte eszenikoetako ekoizleen % 20ko pisu erlatiboa. 2009-2013



Arte eszenikoetako programatzaileak


Arte eszenikoetako areto handien pisuak ere, diru-sarrereri dagokienez, oihartzuna izan du enpleguan, baita erakartzen duten jendearen artean ere: 16 aretotan dago diru-sarreraren bolumen osoaren % 75,3; halaber, enpleguaren % 68,2 eta ikusleen % 68,7 hartzen dituzten bere baitan. Asimetria hori jaitsi egiten da programatzen dituzten ikuskizunei (% 37,8) eta emanaldiak (% 44,5) dagokienez. Datu horiek ekipamendu handi horien ezaugarrien, programazioen, hiriburuetako kokalekuen, udalerrri nagusien eta leku-kopuruaren ondorio dira.

17. irudia. Sektoreko adierazleetan diru-sarrera handienak ematen dituzten arte eszenikoak programatzen dituzten aretoen % 20ren pisu erlatiboa. 2009-2013



Arte eszenikoetako jaialdietan, asimetria handiagoa ikusten da kultura-agenteen artean, eta 2013an are gehiago nabarmendu da: 7 jaialditan diru-sarreraren % 84,4 eta enpleguaren % 75,3 biltzen da programatzaileen profil horren totalarekiko. Bestetik, hona hemen jaialdi guztien arte eszenikoen eskaintzak duen pisua: ikusleen % 39,2 eta programatutako emanaldien % 40,6.


18. irudia. Sektoreko adierazleetan diru-sarrera gehien ematen dituzten arte eszenikoetako jaialdien % 20ren pisu erlatiboa. 2009-2013



Liburu-dendak eta argitaletxeak

Sektorean diru-sarrera gehien ekarri dituzten 19 liburu-denden pisua jaitsi egin da: diru-sarrera totalaren % 58 eta liburu-salmentagatiko diru-sarrera totalaren % 60,9 osatzen dute. Saltoki gehienak kateetako kideak badira ere, tartean liburu-denda independenteren bat ere bada. Saldutako liburuen kopuruari dagokionez, saltoki horietan aleen % 65 saltzen da. Aipatzeko modukoa da sektoreko enplegu totallean duten pisua ere, 120 lanpostu sortzen dituzte eta.


19. irudia. Sektoreko adierazleetan diru-sarrera handiena eragiten duten liburu-denden % 20ren pisu erlatiboa. 2009-2013.



Argitaletxeetan, asimetria areagotu egin da alderdi ekonomikoei eta ekoizpenari dagokienez. Diru-sarrera gehien dituzten agenteen % 20ren baitan dauden 7 argitaletxeek 19,4 milioi euroko diru-sarrera dakartzate (sektoreko bolumen osoaren % 74,8); liburu-salmentagatiko diru-sarreraren % 76,5 biltzen dute. Ekoizpen-jarduerak, halaber, totalarekiko duen pisua adierazten du: tituluen % 56 eta aleen % 72,3.

Bestalde, aipatzekoa da talde honek argitaletxe guztien langileen % 49,2 bilduagatik ere, beheranzko joera izaten jarraitzen duela.

20. irudia. Sektoreko adierazleetan diru-sarrera handienak dituzten argitaletxeen % 20ren pisu erlatiboa. 2009-2013




Musika-programatzaileak

Musika-programatzaile publikoek asimetria handia agertzen dute. Hala ere, horien pisua murriztu egin da, bai diru-sarreraren esparruan, bai enpleguaren esparruan. Diru-sarrera handienak dituzten programatzaile publikoen taldea osatzen duten 14 udal nagusiek (agenteen % 20 dira) 10 milioi euroko aurrekontua dute (totalaren % 68,8). Talde honek mota honetako totalaren langileen % 44,9 osatzen du.


Programatutako kontzertuen pisuari dagokionez, 2009ko mailaren antzera dago (% 39,5), baina hamar ikusletik zazpi erakartzen dituzte (% 72,1).

21. irudia. Sektoreko adierazleetan diru-sarrera handienak dituzten musika-programatzaile publikoen % 20ren pisu erlatiboa. 2009-2013




Sustatzaile pribatuen arteko asimetria handienetakoa da, eta alderdi guztietan goranzko joera argia du: diru-sarrerari dagokionez, % 20 hori osatzen duten 6 agenteek diru-sarreraren totalaren % 82,6, enpleguaren % 72,1 eta ikusleen % 74,5 biltzen dute.

22. irudia. Sektoreko adierazleetan musika-sustatzaile pribatuen % 20ren pisu erlatiboa. 2009-2013



Diru-sarrera eta jarduerari dagokienez musika-areto nagusien pisua murriztu bada ere, bost aretotan bakarrik biltzen dira oraindik ere diru-sarreraren % 60,2 inguru eta ikusleen % 44,9. Esanguratsua da sortzen duten enpleguagatik pisan gorakada nabarmena izatea (% 63,3).


23. irudia. Sektoreko adierazleetan diru-sarrera handienak dituzten musika-aretoen % 20ren pisu erlatiboa. 2009-2013



Disko-saltokiak

Disko-saltoki nagusien pisua, sektore osoa aintzat hartuta, % 70 ingurukoa da adierazle guztietan. 4 saltokitan bakarrik biltzen dira diru-sarreraren 69,1, enpleguaren % 61,1 eta EAEn saldutako diskoen % 74,3.


24. irudia. Sektoreko adierazleetan diru-sarrera handienak dituzten disko-saltokietako agenteen % 20ren pisu erlatiboa. 2009-2013



Ikusizko arteetako agenteak


Lau galeriek diru-sarreren % 60 inguru biltzen dute. Sustatzen duten enpleguari eta erakusketen denboraldiari begira sektoreak dituen berezko ezaugarriek eragiten dute agente-kopuruari dagokion mailekin bat etortzea enpleguaren (totalaren % 32,0) eta egindako erakusketen (% 22,8) arloan duten pisua.

25. irudia. Sektoreko adierazleetan diru-sarrera handienak dituzten arte-galerien % 20ren pisu erlatiboa. 2009-2013



Erakusketa-areto handien asimetria nabarmena da: 8 aretok diru-sarreren totalaren % 76,4 eta enpleguaren % 58,7 osatzen dute. Areto horiek hiriburuetan daude, eta kalitateko erakusketa-programa eskaintzen dute artistei, katalogoei, espazioei zein bestelakoei dagokienez.

26. irudia. Sektoreko adierazleetan diru-sarrera handienak dituzten erakusketa-aretoen % 20ren pisu erlatiboa. 2009-2013




Ikus-entzunezko ekoiztetxeak

ETB analisi honetatik kanpo geratu da; izan ere, bere pisua erabat erabakigarria da. Ondorioz, zailagoa izan litzateke gainerako agenteak karakterizatzea. ETBk euskal ikus-entzunezkoen sektoreko diru-sarreraren % 72,5 eta enpleguaren % 52,5 adierazten du. Are gehiago, sektorean duen pisua areagotu egin da ekitaldi honetan.

Diru-sarrera gehien duen agente-taldeak adierazten duen % 20aren baitan (ETB aintzat hartu gabe), 15 ekoiztetxe daude, eta sektoreko diru-sarreretan hamar eurotik zazpi fakturazten ditu multzo horrek. Enpleguan duen pisua ere oso esanguratsua da, hamar langiletik sei biltzen baititu. Beraz, horiek dira egitura industrializatuena dituzten ekoiztetxeak.

Ekoizpenek guztira pisu urria (% 13,7) agertzen dute, gauzatzen dituzten ekoizpenen ezaugarriengatik. Ekoiztetxe handiek proiektu gutxi egiten dituzte, baina dimentsio handikoak.

27. irudia. Sektoreko adierazleetan diru-sarrera handienak dituzten ikus-entzunezkoen ekoiztetxeen % 20ren pisu erlatiboa (1). 2009-2013



(1) Sin ETB.


2. Zuzeneko kultura vs. kultura erreproduzigarria

Zuzeneko kulturatzat jotzen da arte eszenikoei, musikari eta ikusizko arteei loturiko zuzeneko adierazpenen multzoa. Bereziak dira adierazpen horiek liburuaren, diskoaren edo ikus-entzunezko kulturaren industriak sortzen dituen produktuen ekoizpenari eta kontsumitzeko moduarekiko. Ekoizpenaren arabera egin den bereizketa klasiko seriatua edo bere izaera paregabea nabarmendu egin da teknologia digitalaren ondorioz, hain zuzen, horrek halakoak ekoizteko, kopiaitzeko eta kontsumitzeko ematen dituen aukerengatik. Horrek zuzenean eragiten dio kultura erreproduzigarriaren ardatzari.


Datuek egiaztatzen dute kontsumitzeko modu berriek badutela eragina erreproduzitzeko kulturaren esparru ekonomikoan eta enpleguaren esparruan. 2013an, agenteen maparen banaketan ez da alde esanguratsurik ikusten zuzeneko kulturaren baitan daudenen (% 61,4) eta erreproduzitzeko kulturaren (totalaren % 38,4) baitan daudenen artean. Hala ere, liburu, disko eta ikus-entzunezko industrien diru-sarrerak eta enplegua murriztu egin dira ehunekoaren pisuari dagokionez, betiere 2009tik aurrerako zuzeneko kulturaren aldean: diru-sarrerak % 70,2tik % 65era jaitsi dira, eta, enplegua, berriz, % 65,8tik % 62,1era, totala aintzat hartuta.

Analisi horri beste ñabardura bat gaineratu behar zaio: ETBk kultura erreproduzigarriko agenteen artean duen eragina. Agente esanguratsu hori analisitik kanpo uzten bada, aurreikusten da kultura erreproduzigarriaren industriak dakarren enpleguaren eta diru-sarreraren pisua pixkanaka jaitea, eta 2013an ia erabat orekatzea banaketa hori, zuzeneko kulturako agenteekiko.

28. irudia. Langileak (urteko lanaldiko osoko langileen baliokideak) eta diru-sarrerak (milioi eurotan), zuzeneko kulturako eta kultura erreproduzigarriko agenteen arabera. Kopuru absolutuak eta ehunekoak. 2009-2013



29. irudia. Langileak (urteko lanaldi osoko langileen baliokideak) eta diru-sarrerak (milioi eurotan), zuzeneko kulturako eta kultura erreproduzigarriko agenteen arabera [EITBrik gabe]. Ehunekoak. 2009-2013



3. Arteen eta kultura-industrien bolumen ekonomikoaren bilakaera

Estatistikaren edizio berriaren bidez, arteen eta industrien bolumen ekonomikoaren bilakaeraren emaitzak lor daitezke agenteen tipologia guztietan. Horietako batzuentzat dagoeneko lau urteko datuak daude (2007, 2009, 2011 eta 2013). Beraz, eboluzioa sendotasuna irabaztean ari da. Agente bakoitzeko batezbestekoaren bidez, eboluzioa egiazta daiteke; zehazki, EAEko kultura-agenteen dimentsio ekonomikoa.

Emaitzek agerian uzten dute agente gehienetan badela jaitsiera, bai diru-sarreraren batezbestekoan, bai langileen batezbestekoan. Jaitsiera bera ez ezik, deigarria da kasu askotan haren zenbatekoa ere.

Arte eszenikoetan, ekoizleen datuetan kontraesana dagoela dirudi: 2009. urtea erreferentziazat hartzen bada, ekoizleen batez besteko diru-sarrerak % 6,9 handitzen dira. Gorakada hori dimentsio txikiagoko 17 agente desagertu izanaren ondorioa da, horren ondorioz diru-sarreraren batezbestekoa areagotu egin da eta. Nolanahi ere, 2007. urtea erreferentziazat hartzen bada, ekoizleen batez besteko diru-sarreraren jaitsiera % 10,5ekoa da. Programatzaileek (nagusiki publikoak dira) beren aurrekontuak murriztu dituzte eta beheranzko joera argia dago: 2009az geroztik % 18,5; baina jaitsiera hori % 26,9ra igo zen, 2007. urtea erreferentziazat hartuta.

Liburuaren esparruan, argitaletxeen datuek egiaztatzen dute beherakada izan dela, hala batez besteko diru-sarreretan (% 28,3) nola langileen esparruan (% 38,2). Bestalde, liburu-dendetako diru-sarrerak, 2009. urteaz geroztik, % 6,9 murriztu dira, eta langileen batezbestekoa % 8,1.

Zuzeneko musikaren eboluzioak datu negatiboak ekarri ditu, bereziki adierazgarria izan da kontzertu-aretoetan, diru-sarrerak batez beste % 46,2 murriztu baitira. Gainerako programazioek ere beherakada izan dute: % 24 programatzaile publikoei dagokienez, % 15,2 orkestrei dagokienez, eta % 8,2 sustatzaile pribatuei dagokienez. Kasu guztietan jaitsi da enpleguaren batezbestekoa. Hala, ondorioztatu da zuzeneko musikako agenteek dimentsioa galdu dutela.

Grabatutako musikak agerian uzten ditu disko-saltokien zailtasunak: saltoki horiek 2009. urtetik batez besteko diru-sarreraren % 43 galdu dute. Diskoetxeetan, agente gutxi dagoenez, eboluzioaren oinarrian oso enpresa-ekimen gutxi daude tartean.

Ikusizko arteetan, agente-mota bakoitzaren datuak hainbat logikaren ondorio dira. Ekoizleei dagokienez, diskoetxeekin gertatzen den bezala, agente gutxi direnez, batez besteko datuak ez dira esanguratsuak. Bestalde, erakusketa-gelek (ekimen publikoa da nagusi horietan) diru-sarreraren batez besteko dimentsioa galdu dute. Arte-galerietan (oso enpresa-egitura txikiak dituzte) batez besteko diru-sarrera handitu egin da, nahiz eta 77.900 euro besterik ez, eta batez beste 1,5 langile daude galeriako.

Ikus-entzunezko ekoiztetxeen datuek behera egin dute, hala batez besteko diru-sarrerari dagokienez nola langileei dagokienez: 2009az geroztik, % 28 eta % 7,3, hurrenez hurren.

30. irudia. Diru-sarreraren batezbestekoa, agenteen tipologiaren arabera. 2007-2013

Sektorea	Agentearen tipologia	2007	2009	2011	2013	2009-2013 Aldaketa
		Mila eurotan	Mila eurotan	Mila eurotan	Mila eurotan	%
Arte eszenikoak	Ekoizlea	188,4	157,8	157,1	168,7	▲6,9
	Programatzailea	396,9	355,8	320,5	290,0	▼18,5
Liburua	Argialetxea		1.005,2	920,1	720,4	▼28,3
	Liburu-denda		522,4	560,3	486,5	▼6,9
Musika	Orkestra		6.497,0	5.917,1	5.510,2	▼15,2
	Programatzaile publikoa		275,4	262,5	209,3	▼24,0
	Sustatzaile pribatua		962,9	913,8	880,8	▼8,5
	Kontzertu-aretoak		269,7	187,4	145,2	▼46,2
	Musika-banda eta txistulariak				805,9	-
	Diskoetxeak		341,6	429,6	323,5	▼5,3
Ikusizko arteak	Disko-saltokiak		294,0	156,1	167,6	▼43,0
	Ekoizlea	236,3	1.164,0	860,0	812,9	▼30,2
	Erakusketa-gela	68,0	129,6	172,1	120,9	▼6,7
Ikus-entzunezkoa	Arte-galeria	69,9	71,6	88,8	77,9	▲8,8
	Ekoizlea		2.633,0	2.523,9	1.894,9	▼28,0

31. irudia. Langileen batezbestekoa (urteko lanaldi osoko langileen baliokideak), agenteen tipologiaren arabera. 2007-2013

Sektorea	Agentearen tipologia	2007	2009	2011	2013	2009-2013 Aldaketa
		Batez- bestekoa	Batez- bestekoa	Batez- bestekoa	Batez- bestekoa	%
Arte eszenikoak	Ekoizlea	2,7	2,8	2,3	2,6	▼7,5
	Programatzailea	2,1	2,1	2,0	1,9	▼10,4
Liburua	Argitaletxea		5,2	4,4	3,2	▼38,2
	Liburu-denda		2,9	3,1	2,7	▼8,1
Musika	Orkestra		70,3	71,4	68,7	▼2,3
	Programatzaile publikoa		1,2	1,0	1,0	▼20,7
	Sustatzaile pribatua		5,0	4,6	4,4	▼12,6
	Kontzertu-aretoak		2,6	2,5	1,7	▼36,5
	Musika-banda eta txistulariak				14,5	-
	Diskoetxeak		2,6	3,3	3,2	▲24,2
	Disko-saltokiak			1,5	1,3	1,4
Ikusizko arteak	Ekoizlea	3,0	5,2	6,0	7,7	▲48,6
	Erakusketa-gela	1,0	0,8	1,0	0,9	▲14,9
	Arte-galeria	1,4	1,7	1,4	1,5	▼14,6
Ikus-entzunezkoa	Ekoizlea		17,7	17,7	16,41	▼7,3

4. Kultura euskaraz


Euskara arte eszenikoetan

Euskarak ekoizpen eszenikoan duen pisua nabarmen aldatzen da ekoizpenaren eta erakusketaren artean, baita hiru lurraldeetan duen banaketari dagokionez ere.

EAEko antzerki-konpainien ekoizpenean protagonismo esanguratsua du: ekoizpenaren % 28,7 euskaraz egiten da, eta % 23,4 euskaraz eta gaztelaniaz sorturiko antzerki-piezei dagokie. Lurraldeak aintzat hartuta, Bizkaian eta Araban errotutako konpainien ekoizpenaren % 53 euskaraz egiten da; Gipuzkoan, berriz, % 68,6koa da euskaraz eginiko ekoizpenen ehunekoa.

Programazio eszenikoari dagokionez, Gipuzkoan aukera handiagoa dago antzezlan bat euskaraz ikusteko (antzezlanen % 52,4) Araban (% 31,4) eta Bizkaian (% 23,3) baino.

32. irudia. Euskararen presentzia arte eszenikoen ekoizpenean eta programazioan, lurralde historikoen arabera. Ehunekoak. 2013



(1) Euskaraz nahiz gaztelaniaz ekoizitakoa hartu da kontuan.

Arte eszenikoetako aretoen profilak baldintzatu egiten du euskarak programazioan presentzia txikiagoa edo handiago izatea. Aretoei dagokienez, horien pisua areagotu egiten da areto ertainetan, eta, bereziki, txikienetan. Azken horietan, hamar antzezpenetatik sei ekoizten dira euskaraz.


33. irudia. Arte eszenikoetako programatzaileek euskaraz programatutako antzezenak, tipologiaren arabera. Kopuru absolutuak, ehunekoak eta antzezenen batezbestekoa, aretoen arabera. 2013

Agentearen tipologia	Euskaraz eginiko antzezenak			Antzezenak guztira
	Maizt.	%	Batezbestekoa	Maizt.
Areto handiak	88	12,1	14,7	727
Areto ertainak	469	38,0	15,1	1.233
Areto txikiak	467	63,2	11,1	740
Aretoak guztira	1.024	37,9	13,0	2.700
Jaialdiak	124	16,7	3,8	741
GUZTIRA	1.148	33,4	10,3	3.441

Euskara ikus-entzunezkoetan

Ikus-entzunezkoen ekoizpenen % 45,8 euskaraz egiten dira, dela euskaraz bakarrik, dela euskaraz eta gaztelaniaz. Nabarmentzekoa da Gipuzkoan dauden enpresek egiten duten ekoizpena (% 54,9). Bizkaietan eta Araban dauden ekoiztetxeen artean, hamar ekoizpenetatik lau egiten dira euskaraz.

34. irudia. Euskarak ikus-entzunezkoetan duen pisu erlatiboa, lurralde historikoen arabera. Ehunekoak. 2013




- (1) Euskaraz nahiz gaztelaniaz ekoizitakoa hartu da kontuan.
 (2) ETBren ekoizpena ez da aintzat hartu.

Euskara argitaletxeen ekoizpenean

Euskaraz eginiko argitalpenak EAE osoko argitaletxeetan argitaratutako aleen % 35,5 osatzen dute. Euskarazko ekoizpena nagusi da 250.000 eurora arteko diru-sarrerara tartea duten argitaletxeetan, baita 500.000 eta 1 milioi euro bitarteko diru-sarrerak dituztenetan ere.

35. irudia. Euskarak argitaletxeen ekoizpenean duen pisu erlatiboa, argitaletxeen profilen arabera. Ehunekoak.2013



5. Ekimen publikoarekiko mendekotasuna eta pisua

Arlo publikoarekiko mendekotasunaren azterketa egiteko, bistan denez, titulartasun pribatuko agenteei soilik erreparatu zaie. Emaitzek adierazten dute oro har EAEko kultura-arloko agente pribatuek esparru publikoarekiko mendekotasun-maila baxua dutela; izan ere, haien diru-sarreraren % 6,3 besterik ez dator diru-laguntzetatik. Nolanahi ere, mendekotasun publikoa aztertzean, jasotako diru-laguntzen kopurua ez ezik, administrazioaren egintza ere hartu behar da kontuan, zerbitzuak kontratatzeke agente pribatuen bezero gisa. Baina ez dugunez informazio hori, analisiak diru-laguntzak hartzen ditu oinarri, betiere jakinik emaitzak interpretatzean zuhur jokatu behar dela, aipatutakoagatik.

Arte eszenikoetako sektoreak ikusten da mendekotasun publiko handiena bere baitan dituen agente pribatuen artean: programatzaileen diru-sarreraren % 43,2 diru-laguntza publikoetatik datoz, eta % 16,1 ekoizleen diru-sarreretan. Hain justu, konpainiak adibide egokiak dira: diru-laguntzez gain, arlo publikoarekiko mendekotasunak are lotura estuagoa du programatzaile publikoek ikuskizunak kontratatzearekin.

Liburuaren sektorean, EAEn, oso diru-laguntza gutxi jasotzen dira, liburu-dendetako diru-laguntzek dakartzaten diru-sarrerak oso urriak dira, eta argitaletxeei dagokienez, % 4,2koak dira; gainera, beheranzko joera dute.

Musika-sustatzaileak eta arte eszenikoetako konpainiak kontratazio publikoaren mende daude neurri handi batean. Mota hauetako agenteek diru-laguntzen % 7,4ko pisua dute, eta hor ere beheranzko joera dago. Kontzertu-aretoetan, diru-laguntzen % 5,4 diru-laguntza publikoetatik dator. Disko-saltokiek ez dute diru-laguntza publikorik jasotzen. Azkenik, diskoetxeei dagokienez, diru-laguntzak diru-sarreraren % 4 ingurura besterik ez dira iristen.

Arte-galeriek diru-laguntza publikoekin diru-sarreraren % 3,9 osatzen dute, eta ikus-entzunezkoen ekoizleen kasuan, finantzaketa publikoaren maila handiagoa da, zehazki, % 10,8koa.

36. irudia. Agente publikoek arlo publikoarekiko duten mendekotasuna, sektoreen eta agenteen tipologiaren arabera (1).
Kopuru absolutuak eta ehunekoak. 2009-2013


Sektorea	Agentearen tipologia	2009			2011			2013		
		Agente pribatuak	Diru-sarrera guztia	Ekarpen publikoak	Agente pribatuak	Diru-sarrera guztia	Ekarpen publikoak	Agente pribatuak	Diru-sarrera guztia	Ekarpen publikoak
		Maizt.	Mila eurotan	%	Maizt.	Mila eurotan	%	Maizt.	Mila eurotan	%
Arte eszenikoak	Ekoizlea	68	10.413,5	15,5	59	9.431,0	14,5	49	8.674,1	16,1
	Programatzailea	4	225,5	54,8	3	196,3	30,1	8	2.306,2	43,2
Liburua	Argitaletxea	36	37.638,7	5,3	36	34.591,4	4,9	34	25.932,8	4,2
	Liburu-denda	120	62.689,5	0,3	100	56.030,8	0,2	96	46.708,1	0,2
Musika	Sustatzaile pribatua	21	26.420,0	10,7	19	23.614,8	7,9	21	24.088,8	7,4
	Kontzertu-aretoak	22	6.130,7	1,7	23	4.399,4	1,5	19	2.724,8	5,4
	Diskoetxeak	6	2.049,6	4,3	5	2.148,0	4,2	5	1.617,3	4,3
	Disko-saltokiak	26	7.643,2	0,1	26	4.059,3	0,0	21	3.519,6	0,0
Ikusizko arteak	Arte-galeria	26	1.861,0	7,3	26	2.309,8	3,4	21	1.636,4	3,9
Ikus-	Ekoizlea	81	69.658,0	11,9	77	59.989,4	10,9	73	38.512,0	10,8
Guztira		410	224.729,7	6,8	374	196.770,3	6,0	347	155.720,2	6,3

(1) Analisisik kanpo geratu dira agente pribaturik ez duten tipologiak eta/edo estatistiken sekretua urra lezaketanak.

Jarduera

Sektore publikoak kultura-arloko agenteen artean zer-nolako pisu duen aztertzeko beste ikuspuntu bat³ sortutako jarduerarena izaten da. Erakunde publikoek sortutako jardueraren presentzia handiena arte eszenikoetako antzezpenen esparruak izaten du. Horietan, hamar agente publikotik zazpi programatzen dituzte halakoak. Ikusizko arteen esparruan, jarduera publikoaren presentziak egindako erakusketen erdia baino gehiago dakarte, horien pisua aurreko edizioekiko jaitsi egin bada ere. Kontzertuen programazioari dagokionez, % 46,9 ekimen publikokoak dira. Ikus-entzunezkoek dagokienez, aintzat hartu behar da jardueran arlo publikoak pisu handia duela, txosten honen hainbat ataletan adierazi den bezala, ETBren presentziaren eta pisuaren ondorioz.

37. irudia. Titulartasun publikoko agenteek eginiko jardueraren pisu erlatiboa. Ehunekoak. 2009-2013



³ Analisi honetatik kanpo geratu dira argialetxeak, liburu-dendak, disko-saltokiak eta diskoetxeak, horietan ez baitago agente publikorik.

6. Berritzea eta nazioartekotzea

Inportazioa

Atzerriko artisten presentzia EAEn gauzaten den kulturaren jarduera nazioartera zein neurritan irekita dagoen erakusten duen adierazletzat jo daiteke. Oro har, datuek adierazten dute EAeko artistek eta sortzaileek dutela pisu gehien kulturaren ekoizpenean eta programazioan. Eta joera hori are nabarmenagoa da edizio honetan. Ondorioz, aurrekontuak murriztu izanak ondorioak izan ditu tokiko artistek eginiko ekoizpenen eta programazioen ehunekoetan.


Musika-programazioak nazioartekotze-maila handiagoa du, eta artisten eta atzerriko taldeen presentzia jaitsi egin da: 2009an % 34,8koa zen eta 2013an, % 23,3koa. Ekoizpenaren arloan ere jaitsi egin da atzerriko artisten kopien kopurua (% 18,6).

Kanpoko konpainien kontratazioak ere behera egin du nabarmen antzezpen eszenikoetako esparruan: % 4,9 atzerriko konpainiei dagokienez eta % 34 estatuko taldeei dagokienez.


2013an, argitaletxeek EAetik kanpoko autoreen aldeko apustu argia egin zuen: argitaratutako aleen % 48,6 estatuko autoreenak izan dira, eta % 13,9 atzerrikoenak.

Bestalde, ikusizko arteen sektorean ikusten da aldaketa gutxien duena: egindako erakusketen % 68,4 EAeko artistenak dira, % 15,6 estatukoak eta % 16 atzerrikoak.

38. irudia. Nazioartekotzeak kultura programazioan eta ekoizpenean duen pisua. Ehunekoak. 2009-2013




■ EAE ■ Estatuko gainerako eremuak ■ Atzerria ■ Plurinazionala



Kanpoko merkatuetan presentzia izatea


EAEko arte eszenikoetako konpainiek ez dute presentzia handirik kanpoan: atzerrian, egiten dituzten antzezpenen % 7,6 inguru eta estatuan hamar antzezpenetatik hiru (% 29,4). Dantza-konpainiek presentzia handiagoa dute kanpoan, murrizten ari bada ere.

39. irudia. Arte eszenikoen produkzio-konpainiek egindako emanaldiak, emanaldia egin den lekuaren arabera. Ehunekoak. 2009-2013




Argitaletxeek nagusiki kanpoan dute merkatua. Argitaratutako hamar liburutatik lau EAEn saltzen dira, baina % 43,6ren jomuga estatua da, eta % 12,9rena atzerria. Datuak aurreko edizioen oso antzekoak dira.

40. irudia. Argitaletxeek saldutako liburuak (nobedadeak + funtsa), jomugaren arabera (ehunekoa). 2013



EAEko kontzertuen sustatzaile pribatuek Estatuko merkatura jotzen dute batez ere; programatzen dituzten kontzertuen % 54 biltzen dute. Atzerriko merkatura haien jardueraren % 5,2 da.

41. irudia. Sustatzaile pribatuek programatutako kontzertuak, programazio-tokiaren arabera (ehunekoa). 2013




Berritzea

Berritze-tasaren bidez (ekoizpen berriko unitateak, totalarekiko), kultura-produktu berrietan eginiko inbertsioaren interpretazioa egin daiteke, ondoren merkaturatzeko.

Argitaletxeen industriak du berritze-tasa handiena (% 77,9). Industria diskografikoak % 55,1eko tasa du.

Ekoizpen eszenikoan, tasa erdira jaitsi da 2009az geroztik (% 33koa da).

42. irudia. Berritze-tasa. Ehunekoak. 2009-2013




7. Generoa

EAEko kultura sektoreko langileen arteko desorekak bere horretan jarraitzen du. Emakumeak presentzia txikixeagoa du (% 43,8).

Emakumeak liburuaren eta ikusizko arteen sektoreetan du presentzia handien: hamar langiletatik sei.


Emakumeen ehuneko baxuena musika sektorean da (% 35,8), eta hurrengo ikus-entzunezko sektorean (% 40,5). Arte eszenikoetako sektorean da gizon eta emakumeen arteko orekarik handiena, nahiz eta gizonen pisua handixeagoa izan (% 53).

43. irudia. Langileak (urteko lanaldi osoko langileen baliokideak), sexuaren eta sektoreen arabera. Emakumeen ehunekoak. 2009-2013




Generoaren araberako analisisian, lurraldea ez da esanguratsua. Titulartasunari dagokionez, emakumeak presentzia handiagoa du elkarte eta fundazioetan (% 57,6), eta titulartasun pribatua dutenen artean, berriz, batez bestekoaren gainetik daude (% 48,2).

44. irudia. Langileak (urteko lanaldi osoko langileen baliokideak), sexuaren eta Lurralde Historikoaren arabera. Emakumeen ehunekoak. 2009-2013



45. irudia. Langileak (urteko lanaldi osoko langileen baliokideak), sexuaren eta agenteen titulartasunaren arabera. Emakumeen ehunekoak. 2009-2013



III. LABURPENA



Arteei eta Kultura Industriei buruzko Estatistikak 606 agenteri buruzko informazioa biltzen du, zehazki, arte eszenikoen, musikaren, ikusizko arteen, liburuaren eta ikus-entzunezkoen sektorearenak. Kulturaren sektorean, oso ezaugarri ezberdinetako agenteak daude: arteak eta industriak, agente publikoak, pribatuak, hirugarren sektorea, ekoizleak, erakusketa-gelak eta saltokiak.

Egindako analisiaren bidez, EAEko arte eta industrien egoeraren ikuspegi orokorra ikus daiteke, baita sektore bakoitzaren berezitasunak eta 2009tik hona izandako eboluzioa ere. Ezaugarri nabarmenen artean, honako hauek aipatu behar dira:

Arteak eta kultura industriek 338,1 milioi euroko diru-sarrerak sortzen dituzte, eta 2.665,3 pertsona biltzen dituzte

Diru-sarreraren eta enpleguaren bolumenak erakusten du kulturaren sektoreak garrantzia duela EAEko ekonomian. Hala ere, 2013an, krisiaren eragina nabarmena izan zen sektorean: 2009az geroztik, estatistikaren baitan dauden agenteen egituraren murrizketak izan dira (% 10,2), 130,6 milioi euroan jaitsi dira diru-sarrerak (% 27,9), eta enpleguaren tasa ere jaitsi egin da, 478,5 enplegu galdu baitira (% 15,2).

Emaitzek agerian uzten dute jaitsiera, bai diru-sarreraren batez bestekoan, bai langileen batez bestekoan (agenterik gehienetan). Gainera, jaitsiera hori nabarmena izan da, kasu askotan.

Oro har, diru-sarrera eta gastuen balantzea negatiboa da, 8,6 milioiko aldeaz (diru-sarreraren % 2,5). 2011n zailtasun-seinaleak ikusten ziren eta edizio honetan egiaztatu egin da kultura-erloko sektoreak estutasun-egoeran direla.

Agenterik gehienak titulartasun pribatukoak dira, eta arlo publikoarekiko mendekotasun maila txikia dute

Agente pribatuak nagusi badira ere (% 57,6), horrek ez du eragin nabarmenik diru-sarreraren eta gastuen banaketan, ezta okupazioan ere. Nabarmentzekoa da kultura arloko sektore pribatuan beheranzko joera argia dela: 2009an langileen % 28,1 galdu zen.

Agente pribatuek arlo publikoarekiko mendekotasun-maila baxua dute. Haien diru-sarreraren % 6,3 besterik ez dator diru-laguntzetatik. Arte eszenikoen sektoreak du arlo publikoarekiko mendekotasun handiena, eta ondoren ikus-entzunezkoen ekoizpen-etxeek eta sustatzaile pribatuek. Argitaletxeek, musika-aretoek, diskoetxeek eta arte-galeriek jasotzen dituzten diru-laguntza publikoak batez bestekoaren azpitik daude. Liburu- eta disko-saltokiek laguntza publikorik gabe eusten diete beren negozioei.

Kultura-arloko politikek, herritarren banaketak eta merkatuak hainbat berezitasun eragiten dituzte lurraldeetan

Arte eszenikoetako eta musika programatzaile eta erakusleen sarean, agente publikoak dira nagusi, eta sare hori hiru lurraldeetan banatuta dago. Nabarmentzekoa da gaur egun Araban ez dela ez ikusizko arteetako ekoizlerik, ez erakusketa-aretorik.

Saltokien eta musika-aretoen kokalekuak hainbat berezitasun dakar berarekin: Bizkaia, esaterako, liburu-denden % 66,7 eta arte-galerien % 61,9 biltzen dituelako eta musika-areto gehien dituen lurraldea delako (% 52,2) nabarmentzen da; Gipuzkoa, disko-saltokiengatik (% 57,1); eta Araba 100.000 biztanleko kontzertu-aretoen ratioagatik (1,6).

Denborak aurrera egin ahala, finkatu egin da jarduera eta diru-sarrerak agente gutxi batzuetan metatzea

Kultura-egituraren baitan, dimentsio txikiko agente ugari dira. Halaber, negozioei dago-kienez, eragin handiko agente-talde txiki bat nabarmendu beharra dago. Asimetrien gaineko analisiak adierazten du diru-sarrera gehien dituzten agenteen % 20k diru-sarreraren % 60 baino gehiago biltzen dutela, arte-galerien kasuan izan ezik. Tipologia bakoitzean asimetria-mailak ezberdinak badira ere, diru-sarreraren kontzentrazioa da batzen dituenena, eta, neurri txikiagoan, enpleguaren kontzentrazioa.

Rankingaren goi-aldean daude arte eszenikoetako jaialdiak eta musika-sustatzaileak (% 80 baino gehiago); bigarren mailan (% 75) erakusketa-aretoak, antzokiak eta argitaletxeak; hirugarren mailan (% 69), ikus-entzunezkoetako ekoizleak, disko-saltokiak, musika-programatzaile publikoak eta arte eszenikoetako konpainiak; eta maila baxuenean (% 60 inguru), musika-aretoak, arte-galeriak eta liburu-dendak.

Kontsumitzeko modu berriek eragina izan dute kultura erreproduzigarrian

Industrializazio-maila handiagoa behar duten agenteek pisu erlatibo txikiagoa dute (kultura erreproduzigarriaren esparruko 233 agente eta zuzeneko kulturaren esparruko 373 agente), eta banaketari dagokionez, ez dago nabarmentzeko moduko alderik. Hala ere, 2009tik aurrerako zuzeneko kulturarekin alderatuz, liburu, disko eta ikus-entzunezkoen industrien diru-sarrerak eta enplegua murriztu egin dira, ehunekoaren pisuari dagokionez: diru-sarrerak % 70,2tik % 65era jaitsi dira, eta, enplegua % 65,8tik % 62,1era, totala aintzat hartuta.

Euskararen presentzia nabarmena da antzerki eta ikus-entzunezkoen ekoizpenean

Euskara pisua galtzen ari bada ere (2011ko datuen aldean), protagonismo handia du EAEko konpainien antzerki-ekoizpenean (% 52,1) eta ikus-entzunezkoen ekoizpenean (% 45,8). Argitaletxeen sektorean, aleen % 35,5 euskaraz argitaratzen da.



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



www.euskadi.eus/kulturabehatokia